

Fundacion Sancho el Sabio Fundazioa




Fundacion Sancho el Sabio Fundazioa
Fundacion Sancho el Sabio Fundazioa

II


ATV

Z 819



A.T.V.
2819





M. 10104
R - 4461



JAUNGOICUAREN

AMAR AGUINDUBEETACO

AZQUENECO BOSTEEN

IC ASIQUIZUNAC,

AITA PRAI BARTOLOME SANTA

Teresac Marquinaco Carmen Ortozeco

Predicoriae aterac.

II. ZATIJA



BIAR DAN ONDO IZATIAGAZ.

*Iruñean : Rada Alargunaren Liburuguillaan.
1817 Urtean.*

(I)

IRACURLIARI.

Bildurrezco ardura bategaz asi nevan cristi-
naubaren *Iasiquizunac* arguitara aterateco Sai-
lla. Bainaz dacustanian , 1. T. ez daucazuzala
ain comuntzat, aurreratu nas 2. aimbat arinen
zure escubetaraco prestetara. Leenguen ornidu-
rija, luce laburra, ta esaeria daroie oneec. Di-
rautsut bene benetan, Iracurlia. Ez nas neutre
jaquinagaz asco pijetan. Bainaz ezin ucatu negui,
aparteco poza artu davena nire vijotzac , Elei-
sa-guzonac ene neque pusquia ontzat emon da-
veenian.

Ez nas aaztu , jaquitunai itandutiagaz : Go-
goratu daguidezala , 2. Zati onetaraco , 1. Za-
tijan topau cuqueezan uts , nic guichitu negui-
zanac.... Onen gainian artu ditudan erantzunac,
izan

(II)

izan dira esquer onecuac. Au zor deutseet gueijago. Eguija da , erantzun eustan batec : *P. iminten nevala f lecuban* : Bainha , jaquitunac dinuenez , ta euscaldun utsai entzuten jacuenez , ez dauca f cer eguinic guéure cusqueran.

Batzuc gura leuquee , *Icasiquizun* oncec urte barruko Domeequetaco evangeliuagaz catituta egotia. Ez dinot , gaisqui jago egongo litzaatequezala. Bainha , ene ustez , ez leuquee onera gueijago euquico au gaiti. Erronako Catecismua *Cura jaunentzat* , ta Eleisa-guizonentza cristinauben eracutsi osoraco eguin zan. Elisako Batzaar , ta Jaquitun Nausijen ondo esatez jantzia , jasota dago , besteric ez eduban. Trentoko Batzaar Santubaren aguinduz urten evan ar-guitara. Bainha orregaiti ez dago Catecismo aren eracutsija Domeequetaco evangeliuagaz lotuta.

Bai-

(III)

Bai , cristinaubac sinistu , eguin , escatu , ta artu biar daven guztia , arrigarizco esaeriagaz , niaustasunagaz , ta indarragaz eracutsita. Trentoko Batzaar santubac bere ez deutsee escatuten
(1) Eleisa guizonai , ta Cura Jaunai , nai , ta nai ezian Domeeca , ta jai andijetan egun ataco evangeliua eracusteco ; ez bada *Escritura Sagraduba* , ta *Jaungoicuaren leguia* , edo *Jaungoicuaren verbia* eracusteco. Beste Catecismo Nau- sijac bere ez dira lotuten domeeca , ta jai an- dijetaco evangeliuen saillagaz.

Cristinatzaco sinisquizunac , eguiquizunac escaquizunac , ta artuquizunac dira Eleisa guizo- nena iklengo eracusquizunac , ta cristinauben ica- siquizunac. Au izan da nire lana. Ez deuts egu- no goguac ~~enon~~ , neure *Eracutsiar* oba euque- la , urte barruko domecqetako evangeliuaren


ver-

(1) Sess. 24 cap. 4. de Reform.

(IV)

verba , edo irago bategaz Bacochia catiatuta egotia. Atara emon ezquiero , cer egun erraza da. Evangelijo bacochari ezarri leguijox iru , edo lau Icasiquizun , buruba asco necatu bagaric. Bainak Cerubac prestau davela , esan legui , cristinatzaco eracutsija gueure pulpituetaraco guztien erata. Ene Eracusquizunak baduaz , domeeque-
tco Evangelijuagaz lotu begatik ; beste bate-
nac urtengo davee laster arguitara , edo orain-
go urten davee , Evangelijuaquin. Cerubari es-
querrac.

Izan leiteque , Iracurlia , zuc *Icasiquizun* ongi goraac cristia. Bainak nire al eguna ezin elduda , asco mercatuteco vidia eguitera. Beti dago gacha oinian. Asco costa , ta merque emon , ezin legui. Agur.



VI. AGUINDUBA.

NON MOECHABERIS. *Exod. Cap. 20. Deut. 5.*

I. ICASQUIZUNA , CEINETAN ERA-
EUSTENDAN : 1. Cer eragozten daven Jaungoi-
cuac Aguindu onetan . 2. Ce premina andi-
cua dan , cristinaubac ondo jaquitia
aguindu onetaco eracutsija.

Matrimonioco Sacramentuba dan leguez se-
mar emazten lotugarri estuba , esaten deutscu,
neure enzula onac , Errromaco Catecismuac (1),
ezin jazo lequijue senar emaztiai dicha obáric,
alcar estimau , ta maite daveela , aiutia baino.
Ta ezda beste aldeti gauza mingochagoric ta
penagarrijagoric bere , alcarri zor deutseen amo-
dijua , ta carinua inori emoten deutseela , ba-
tac , edo bestiac icustia baino.

Errazoez bada , dino , ta bide zucenian,
bostgarren aguinduban Jangoicuac *inor illtia* era-
gotzita , aren ureengo eragozten dau adulteri-
joco pecaba ; inor azartu ezdedin , caridadiaren
indar andija oidacarren matrimonioco bat egui-
te santuba , ta ondrauba urratuten. Asi era one-
gaz jarraituten deutsa Cura Jaunen Catecismuac
scigaren aguinduko eracutsijari. Gogoratuten

H. Zatija.

A 2

dau

(1) De 6. precepto n. 1.

4

Aguindubetako

dau, aguindu santu onetan eracustiac gordebiar daven verbetako moduba, ta garbitasuna; Christinaubai dotrina au ondo aituten emon biar jucuena; Oaestidadia gordeetako, cer eguna biardan, ta ce contu atera biardan; celan austendan, ta cec ausi etaguin oidaven seigarren aguindu santuba; Ce ezaina, ta ichusija dan araguizco pecatuba; ce castigubac oidoituban bere contra pecatu loijac.... Ta, beste aguindu onetan esan aldedin, ta jaquin biar dan guztia goratuten deuscu errromako, icentau dan, Catecismuac Escritura sagradubagaz, ta Eleisiaren Gurasaquin, cristinau pielai eracusteco.

Christinaubaren eguin biar guztien artian ezdago mentunaz beste bat, seigarren aguindu santubac baino, eracusten arriscu gueijago daucanic. Ondo aituten, gachaago danic. Ondo icasijaren premina gueijago daucanic. Ondo icastia gueijagori jagocanic. Ez jaquinagaz arima gueijago galduten davenic. Espiritu Santubac sartijago, ta zamai gueijagogaz aotan artu davenic. Eleisiaren Gurasuac bildurrago izan jacozanic. Ta Cristandadeco aitura Santubai lotsaari gueijago emoten deutsanic. Castidadiaren edertasuna, ta garbitasuna aguinduten dau Jaungoicuac seigarren lecuban. *Non mæchaveris.* Ta luxurijac, cein dan Castidadiaren arerijua, illundu ta galduen dau castidadia. Luxurijac, San Ambrosioe dinuan leguez (1) amairic ezdaucan oquerterija impamiae. Luxurijac, legue Santubagaz conturnic ezdaucanac, ta vicio guztiai ernia emoten deutseenac. Luxurijac, Santubaren esanian,

(1) Lib. de Helia, et jejunio, c. 19. ez

Icasiquizunac.

5

ez beste oquerrija guztien ece, codiciaren beraren bere ama, edo sortulia danae. Onec lotzatu, ezaindu, ta galduen dau gorputceco onestidadiaren, ta garbitasunaren edertasuna, cein zaintu, ta gordeetan daven Jaungoicuac seigarren aguinduban, adulterijoco pecatuba cragotzijagaz. *Non marchaveris.*

Eguiija esateco, ez da errez, neurri entzula onac, seigarren aguindu santuco egun biarrac eracusten cristinaubari. Esanquizunac dirian leguez eureenez bai esateco, ta bai entzuteco lotsarizcuac. Inos aotan bete artu biar ez litzaatequezanac, San Paulo Apostolubaren aguinduban. Euraquin dacarreec lotsarizco gachtasun bat, esateco. Beste aldeti, seigarren aguinduco egun biarrac, ta cragotzijac zabalduta dagozan leguez esquina guztietara, edade guztietara, ta estadu guztietara maaste andijan bapere ordena bagaric; ezda errez, aguindu onetaco Icasiquizunai sallaren echuria emoten. Beste aguindubetan sail bat asi, ta amaitu legui ordena apur bategaz, entzulaac aitu, ta buruban cerbaitaan, dendatu ezquero, euqui leguijen tercijuán. Baino, San Ambrosioc dinuan leguez, aguindu onetaco pecatubac, ez neurriric, ez amairic, ez ordenaric dauquec. Ta Eracutsija, aituteco erara ecartiac, lana dauca niretzat beintzet.

Baina alan bere, Espiritu Santubari gracijsa escatuta; Ama Virgina, guztiz garbija virtuarte-cotzat artuta; Vijotceco uste, ta gauza aimbat onduen zucenduta, ta garbituta; lotsaarizco gauzaac esateco, ta eracusteco verbaac aimbat ondua

6

Aguindubetako

duen neurauta, ta moduztauta; ceuben, Jangoi-
cuaren verba Santuba entzuteco, ta egun biar-
rac icasteco gurari vitcijan, ezagunian, ta san-
tuban, neure indarretan baino, gucijago pijauta;
esquinteen deutsut, cristinaubac, seigarren aguin-
duco eracutsi biarrecua, ta lan andicua.

Nai neuque, albalitz; Ez, belaatri ~~garbijac~~ tristetutia. Ez, viotz garbijai quezcaac, ta lu-
urrezko guratijac iraastia. Ez, arima santai ta zu-
cenai galdu bidiac eraeustia. Ez, Ez-jaquín zo-
tijonecuai gacheraco ezauberia, ta jausmoduben
arguija emotia. Ez, ez neuque gura, ariniac gar-
bituteco, ta osatuteco balsamo onaren lecuban,
vereno illgarrija zabaldutia. Nai neuque bai: Ent-
zula guztien viotceetan sortutia, erneetia, jaijo-
ta, sustrai senduaquin icustia castidadiaren, onces-
tidadiaren, ta modestijaren, edo, gorputzeco, ta
arimaco garbitasunaren amodijo sutsuba, vitzija,
ta gogotsuba.

Nai neuque: Cristinau guztiac artu daguijen
pecatu loijaren gorroto mortala, ta ezautu da-
guijczan arena calte icaragarriac, ta negargarri-
jac, bai arimaan, ta bai gorputzian. Nai neuque:
gueure gorputzac, ta arimac izatia Espiritu San-
tubaren eche garbi, vizi, santubac.

Alan gura izan daguijala Cerubac. Alan gu-
ta izandaguijala Jesus Maitiac. Alan gura izan-
daguijala Ama Virgina, guztiz garbijac. Jaungoi-
ko Altsubac, Ysaias Propeta Santubari ceruko su
santubagaz ezpanac garbitu eutsazanac, garbitu
daguijala bada bere amodijo santubaren su vit-
zijagaz nire arimia, nire vijotza, nire gogua, ni-
re

Irasiquizukar.

7

te miina , nire ezpanac , ta nire verbaac. Bialdu daguijala , bere jaquiturija neutri bagacuaren eraijo arguigarri bat nire adinera , edo adillara , seigarren aguindu santuco nire eracutsijac , ta verbaac , guztiac izan ditezan Jaungoico andijaren ondraraco , ta gueure arimen oneraco. Pres-taera onegaz guztiai asipena emoteco , esango deutsut orain : 1. Cer eragozten deutscun Jaungoicuac seigarren aguinduban. 2. Ce premina andicua dan , aguindu onetaco eracutsija cris-tinaubac ondo jaquitia.

1. « Cer eragozten deutsa bāda Jaungoicuac seigarren aguindu santuban cristinaubari ? Eragozten deutsa. *Lelengo* : adulterijoco pecatuba-Senarrac , edo emaztiac , bere laguna vitzi daven artian , bestegaz araguizco pecatu eguitia. Zazpi malecija , edo legue austre conteetan ditu Santo Tomasec adulterijoco pecatu bacobchian. Austen dau naturaleciaren leguia. Austen dau Jaungoicuaren ordenia. Austen dau matrimonio-co Sacramentubaren erreverencijsa , ta zuentasuna. Austen dau lagunari emondaco verbia , ta lejaltasuna. Austen dau pameñijacq. Amen , era-bagi argusja , ta ezaubera balijocua. Austen dau umiat zor jacuen aziera ona. Ta austen dau adulterijoguinac , bere euquija pecatuban ez castetaco leguix. Pecatu impame au eragozten dau Jaungoicuac verba aguirijaquin. lelengo seigar-ren aguindu santuban.

Eragozten dau *Bigarrenian* : Matrimonio Santori campora , gorputza , edo erimia araguizco guztuagaz loitu leguijan guztsia. Alan esaten deus-

8

Aguindubetaco

cu Erromaco Catecisoruac (1). Alari esaten deus-
 cu San Agustinec (2). Alan cracusteri deuscu-
 bee Bleisiaren Gurasuauc (3). Adulterijuaren ice-
 nágaz eragozten ditubala Jaungoicuac seigarren
 aguinduban, gorputza, edo arimia loitu legui-
 jen, matrimonio santuti campotaco, luxurija-
 ren gusto bide bagaco guztiac. Oneec dira: 1.
 Noberaren burubagaz, edo inogaz, cristinau
 danagaz, edo ez danagaz luxurijazco gauza loi-
 jac eguitia. 2. Canta, ta verba desonestubac
 esatia. 3. Ezuberaz, ta bere naiz gauza loi-
 jac gogoratuta, areetan gusto artutia. 4. Gau-
 za desonestubac eguiteco, edo eragineco, vo-
 rondatia euquitia. Berba baten esaten da guz-
 tia. Jaungoicuac eragozten ditu seigarren aguin-
 du santuban: Matrimonio santuti campora, arim-
 aco, ta gorputceco castidadia, ta garbitasuna
 loitu, manchau, ta ezaindu leguijczan egui-
 té, verba, desio, ta penseeta güztiac. Guero-
 eo leasiquizunetan esango da oneen eracutsibiar-
 recua. Guztiz garbiya, ta Santuba da gueure
 Jaungoicua. Ta garbijac, ta Santubac guraditu
 gueure arimac, ta gorputzac bere echetzat, ta
 egon lecutzat. Gracijaren edertasuna, ta obrac
 gura ditu Espíritu Santubac bere temp'u vit-
 zian, cein dirian cristinauben gorputzac. Ara-
 guijaren obrac iuurrezcuae, ezainac, ta loijac
 dira. Ta agaiti dantaz Jaungoicuac guztiac era-
 goizita bere legue Santuban. Eguitade lotsaa-
 rizco oneec cer dirian, ta celan dirian, Es-

cri-

(1) 6. præc. n. 2. (2) Lib. 2. sup. Exod. q.
 11. (3) A Lap. in c. 5. Deuterom.

Iasiquizunat.

9

critura Sagradubac esaten dau , bai testamen-
tu zaarriān (1) , ta bai harrijan (2) . Esaminau
daigun bada puscabat : ; Ya cristinaubari ceim-
bat balijo deutsan , aguindu santiu onetako do-
trinia ondo icastia ?

H. Ez dago dudaric , neute entzula onac . Sei-
garren aguindu santuba da , errazojaren usura
eldu dirian guizon , ta emacume guztiaquin
verba eguiten davena . Guztiai aguinduten deut-
see Jaungoico zucenac , ta itzaltsubac : gorput-
zac ondo ezteco , araguija dometako , ta lotsaa-
rizco guraarijai berac imini daven neuriti cam-
pora , urtetan ez isteeco . Guizonac luurrezcuaac
gara ; ta gure gurarijac eurenex beti duaz luur-
rezco gusto eragotcijetara . Espirituba pelietan da
araguijaren contra ; ta araguija espiritubaren con-
tra . ; Oh , ce guerra andija jaguiten dan bijen
artian ! ; Oh , ceimbat bidar araguijac goituten
daven espirituba ! ; Oh , ceimbat bidar (batera
esateco) luxurijac galdueten daven arimia ! Go-
goratuta beste bagaric , icara eguiten dau vi-
jotzac .

Azartu zan San Bernardo esaten (3) : *Di-
abrubac arima gueijago beretuten ditubola luxu-
rijagaz , beste oquerrerijequin baino Luxuri-
da , dino santubac , impernuba alegreetan da-
vena , ta casic mundu guztia condeneetan da-
vena . Ta San Remigioe esaten evan : Ume chi-*

II. Zatija.

B

car-

(1) Tob. c. 4. Eccl. c. 41. Deut. c. 23 Eccl.
c. 9. Job. c. 3. Isai. c. 13. (2) Matth. c. 5. Cor.
c. 6. Ephes. c. 5. I. Cor. c. 15. (3) T. 4. serm.
21. de luxur.

- 10

Aguindubetako.

*sarrac apartau ezquero , nausijestati guichi
salvetan diriala luxurija gaiti. ; Oh , achac eu-
rac birrinduteco verbac! ; Ezdau bada cristi-
naubac pensauco ondo , cer dan , edo celan ete-
dan , impernuba alegretan daven , munduric
gueijena condenetan daven , ta bestiac baino
ezainago , ta caltegarrijago dan pecatuba , edo
legue austia! Izanic luxurija , Jaungoicuac , eta
naturaleciac eragotcija , ta pecatu illgarrijaren
beian eragotzija , guero esango dan leguez , nai
pensamentuz , nai verbaz , nai eguitadez , nai
bacarrian , nai lagunagaz , nai gaztetan , nai
edade elduban , nai zaartuta , nai ezcondubac ,
ta nai libriac , nai aberatsac , ta nai pobriac ,
nai gaisuac , ta nai osasuntsubac eguin leguijear-
na , gorputza , ta araguija beti beragaz dauca-
laco edoceinec. ; Ezda chito gauza biarrecua ,
eristinau guztiac , eta bacochac ondo jaquitia ,
ain arriscu andico , ta orduban ordubango
eguin biarrian , cer dan , ta ceteraguino dan
Jaungoicuaren aguindu santuba?*

Seigarren aguindu santuba da bada , cristi-
naubac , guztioc irago biar dogun zubi bat ,
jausi bagaric iragoteco , chito labana ; ta min
artu bagaric , pausu ^{legutzen} eguiteco , chito gacha . Zu-
bi atan umiac labanduten dira . Naustubac col-
pe andijac artuten ditubee . Ta zaarrac pausu
uts asco egiten davee . Ta gazte , eldu , ta zaar
asco bertan betico galdueten dira . ; Ceimbat ba-
lijo deutsa bada , zubija irago biar davenari ,
celan juan biar daven , nun oina imini biar
daven , ta celan pausu eguin biar daven jaqui-
tiae ?

Ieasiquizunat.

11

tiae? ; Nortzuc, eta celan, zubi laban, guztiz gach atan jausi bagaric irago dirian, ondo ezaututiac? ; Jausi dirianac, celan jagui dirian, ta ostera ez jausteco, cer eguin daveen icas-tiac? Ezin ucatu guinai, neure entzula onac, chito balijo andicua, ita premina andicua da-la au cristinaubarentzat.

Ta ezda beste gauzatic seigarren aguindu eantuco eracutsija. Garbitasunaren, ta castida-diaten legua, ta legue austiaren penia, edo castiguba cristinaubari aituten emotia, da, aguindu onetaco eracutsi guztia. Escritura Sagradu-ban, ta Elcisa ama santiaren Gurasuetan ez da-go menturaz beste cristinaubaren eguin biarre-taco aguindu bat, sarriago, arguiriago, ta itzaltsubago eracutsita, castidadia gorde biarra, ta gordetan ezdavenaren castiguba baino.. Ezau-tuten eveen Eracusla Cerutar arrec; luxurijac sustrai andijae daucazana. Arima asco illten ditubana. Iraasten erraza dana. Osatuten gacha dana. Santubai eurai cer eguin asco emon deut-scena. Andijac, eta senduac bere goitu dituba-na. Cristandadia desondreetan davena. Ceruba-ri burla eguiten deutsana. Guizonac ganadutu-ten ditubana. Munduba ezaindutendavena. Jaun-goicuac chito gorroto deutsana. Ta pena bil-dur garijequin castigau davena. Ezaututen eveen Jaungoicozco guizon arrec, engaño asco, ta its eguite andijac erein ditubala diabrubac gui-zonen vijotzetan seigarren aguinduko doctrina santubaren contra. Luxurijaren sare gaistuetan sartuta, itsututa, daucazala etsaijac arima asco,

II. Zatija.

B2

pe-

Aguindubetako.

pecatu loijagaz beretuta. Orregaiti zelo santu bategaz cracutsi eveen castidadiaren doctrinia can sau bagaric, ta diadar éguin eveen luxurijaren contra isildu bagaric.

Batzuc uste davee, araguizco pecatubae, eguiten errezac dirian leguez, parcatuten bere errezac diriala, ta Jaungoicuac aimbeste gorroto ezdeutsala pecatu loijari. Au doctrinaco utseguitia da. Beste batzuc, castidadiaren contraco pecatu mortalzac Eleisiac erabaguita daucazanac, ez dauqueez casic pecatutzat bere. Ta engainu onegaz vitzi dira itsu itsuban pecatu mortalian. Beste ascoc, pecatu loija aintzac eQui arren, pecatuco ocasinoiai ezdeutsee casuric eguiten. Au da, sutan, berotu bagaric, egoa gura izatia. Alan dagoz beste uts eguite andi, ta lodi asco asimen calte aguirrijan seigarren aguindubaren contra.

Bada, cristinaubac, utseguite, ta engainu bildurgarri onei aurria artuteco, esango deutsut seigarren aguindu onetan : *Luxurijaren echia elacua dan* : *Jaungoicuac pecatu ezaint oni celan beguiratuten deutsan* : *Impernubac ee estiminoe emoten deutsan* : *Pecatio loijac beras mundubari ce echura emon deutsan* : *Santubac celan beguiratu deutseen berari* : *Ceintzuc dirian, aguindu onec eragozten dituban eguitezco pecatubao* : *Ceintzuc diri in verbazco pecatubae* : *Ceintzuc dirian, goguan leku emondaco, edo pensamentuzco pecatubao* : *Tanizquenian virginidadiaren, ta curridiliaren balilua*. Au izango da, Ceruba lagua dogula, aguindu onetaco

Icasiquizuna.

13

nire eracutsijen , ta eeuben icasiquizunen gueija. Escatu daijogun Jaungoico onari bere gracijsa Jesusen Erijotza penazcua ta gracijazco irabacijac gaiti , guztia ~~jusatila~~ jazo dedin Trinidade guztiz santiaren ondrasaco , ta gueure arimen oneraco. Amen.

II. ICASQUIZUNA, CEINETAN ERA-
CUSTEN DAN : *Ce Ondotsuba , zabala , lucia , ta
altuba dan Castidadiaren contraco
pecatubaren Echia.*

Castidadiaren contraco pecatuba da , neure cristinaubac , guizonaren sortu eraco biarretan errazoiaren , ta Jaungoicuaren leguiaren contra gorputzari gusto emotia. Esaten da *sortu eraco biarretan*. Bada janagaz , ta edanagaz gorputzari gusto emon da , peccatu eguin arren , ezda castidadiaren contra. Esaten da *errazoiaren , ta Jaungoicuaren leguiaren contra*. Bada matrimonio sanituko estaduba ezda , ez errazoiaren , ta *ez Jaungoicuaren leguiaren contra*. Esaten da *gorputzari gusto emotia*. Bada beste pecatubac ezdira aimbeste gorputzarenac , ez bada vorondatiarenac. Castidadiaren contraco pecatubari esaten jaco : *Araguizco pecatuba* ; araguian asi , ta amaituten dañaco. Esaten jaco : *Pecatu loiha* ; guztiz loiha dañaco. Esaten jaco : *Luxurijazco pecatuba* ; alaco gaucetan gogua olguetan dañaco. Esaten jaco : *Pecatu desonestuba* ; arimako , ta gorputceco garbitasuna , ta osotasuna gal-

14

Aguindubeetaco.

galduten davelaco. *Esaten jaco : Lotsarizco pecatuba* ; danic deunguseñac bere , lotsatubagariç , egüiten *ez davelaco*.

Icen onec guztioc emoten jacob castidadie ren contraco pecatubari. Seigarren aguindu santuba austen daven pecatubari. Bera ezaina dan leguez , icenac bere ezainac dira ; aotan bere cristinaubac artu biar *ez lituquianac* , dira. Bainna pecatuba bera dan leguez , ain campo andija daucana , ta aimbeste anima itsu itsuban im pernura darioiazana ; icen bategaz , edo beste bategaz eracutsi biar jaco cristinaubari pecatu loiaren vereno iraascorra. Esan daijogun bada *lotsaarizco pecatuba* ; beste icen *ezainagoric preminiac* eraso eraguiten ezdavenian. Ta cristinaubac leleengoti artu daguijan *Lotsarizco pecatu madaricatubaren gorroto santuba* , ta itzal vil durgarrija , esaminau daigun : *Ce ondotsuba ; ce zabala ; ce luzia ; ta ce altuba dan bere Errinu impamia*. Entzun egüizu , cristinaubac , gogo onagaz , ta artu egüizu ceuben oneraco doctrina santa au. Menturaz *ez deutsu guichia ge* balijoco , ceuben betiko salvacinoia baino.

I. Impernuraguino eldutenea lotsarizco pecatubaren cimantuba. Alan esaten deutscu Espiritu Santubac lecu ascotan. *Leza andija , ta ondotsuba dala emacume loija* , dino Salomonec (1) , ta bere oinac eldutenea diriala impernura guinno. *Impernurako vidia dala* , dino beste lecubaten (2) , *pecatu lotsariztuaren echia* . ; Bainanungua izan leiteque , edo nun euqui legui sus trai-

(1) Prov. c. 22. (2) C. 7.

Icasiquizunae.

15

graija, edo cimentuba lotsarizco pecatubac, im-
pernubar baino? Impernuba bada illuna, astu-
na, loijsa, ta atsituba; lotsarizco pecatuba bes-
te aimbeste da. ¡Oh, ce vildurgarrija, imper-
nuraguinoco sustraijac daucazan oquerrija! Ta
bere zabaleria?

II. ¿Batuco eteda lecu chiqui baten pecatu
ezain au? ¿Gueratuco eteda erri baten, pro-
vincija baten, edo Erreinu baten lotsarizco pe-
catubaren pestia? Ez, cristiñaubac. Mundubac
dauan edu zabalera, dauca pecatubac berac.
Noraguino elduten dirian guizonac, eta ema-
cumiac munduban; araguino elduten da lotsa-
rizco pecatuba. Izan arren Adanen seme alaba,
mundu guztian zabaldubac, euren sinistute, pen-
seeta, ta oituretan apartecuac, ta alcar arruten
ezdaveenac. Batzuc Gentilac, beste batzuc Ju-
degubac, beste batzuc Moruac, edo Jaungoi-
co bagacuac, edo Eregiac, ta beste asco cris-
tinaubac, guztietara zabalduten da lotsarizco
pecatuba. Alperrie euquico ditubee guizonac
aparteko leguiac, ecandubac, azieria, ta usa-
dijiac eutene gobernuraco beste eguin biarretan.
Lecu guztietan aguinduko dau, ta topauco dau,
noi lecu emon pecatu loijac. Ezda batubago
bere erreinuba, edo egon lecuba mundu guz-
tia baino: ¡Oh, lotsarizco pecatubaren peste
zabala, ta iraazcotra! ¿Ta noraguino elduco
etedea?

III. Demora guichiua balitz alaco gachi
vildur garrija; pena guichiago emongo leuque.
Baina ez. Mundubaren asierati ona badirau.

Ada-

16

Aguindubetako

Adanien loba bat galdu evan lelengo pecatu lotsarizco onen. Ta aric ona zaartu, edo casau biarrian, egunian baino egunian dauca indar gueijago, campo gueijago, crijadu, ta crijada gueijago. Guiza aldiric guiza aldica sendotuten da, ta boteetan ditu sustrai barrijac. Pecatu zoriguesto onen contra Propeta Santubac, Apostolu Santubac, ta Eleisiaren Gurasuac predicau davee, diadar eguin davee, ta bere gach negar garrijac contau ditubee dempora guztietan. Bainaz gaur eguna ezdau guichiago aguinduten, ta ezdau calte guichiago eguiten atimetan. ¡Oh, imperauco pozuti urtendaco pecatu madaricatuba, demporiac amaituten ezdavena! ¡Ta noraguino jasoco etedau bere echia, edo egon lecuba?

IV. Eguiija esateko, ezda lotsarizco pecatubaten alturia ain andija. Luurrezcua da, ta luurraren urrian davil. Bainaz luurreco palacijuena, ta eche andijen puntaraguino igoten dau. Bai cristinaubac. Pecatu loi lotsarizco ónen gorrotua ceuben vijotcetan artuteco, gogoratu eguzu, noraguino igoten daven, ta nori aguinduten deutsan. Luxurijac aguinduten deutsa aberatsari, ta bestec quendu ezin deutsan diruba, quenduten deutsa. Aguinduten deutsa jaquitunari luxurijac; ta istendau tontotuta, choratuta, lelotuta jaquitunic andijena. Aguinduten deutsa ondraubari; ta, ondria quenduta, ecarten dau guztien burlagarri izatera. Aguinduten deutsa indartsbari; ta istendau macalduta, gaisotuta, orituta, ija illainian. Esposo baten dicha, ta

po-

Icasiquizunat.

17

poza da Esposa lejala ; ta á salduten dau Esposuac , luxurija serbidutia gaiti. Beste aimbeste eraguiten deutsa luxurijac Emaztiari bere Esposuaren contra. Caballeruac , ta Señoraac osticopetuten dave euren ondria , ta painia. Damaac , ta nescatillaac euren onestidadia , ta cleituba. Erreguiac euren Coroiac , ta alizate altuba. Ta andi beeracuac ez deutsee guichiago obeiduten lotsarizco pecatu gaistuari. Ezdago estaduric , ez condecinoeric luxurijari incensuba emoten ez deutsanic. Ta , bere vijotzian altares bat eguin da , adoretan ezdavenic. ¡Oh , pecatu altsuba ! ¡Oh , pecatu atrebiduba ! ¿Nor ~~liza~~ librauco da beraganic ? Impernuraguinoco sustraijac daucaz. Munduba edu , zabal da. Guizaälди guztiac edu , luzetuten da. Ta guizon , ta emacumen jaquiturija , euquija , ondria , cleituba , ta osasuna baino altubago , ta aguintarijago da. ¡Oh Luxurija , impernuco basilisco bildurgarrija !

¿ Nai dozu , cristiñaubac , entzun , lotsarizco pecatu ezainac daucan echiaren , erreinubarren , edo aguindutiaren irudi ezagun bat ? Gogoratu bada , ez burutacinoe ustzat ; ez bada gueure oituretaco jazo eguijazcotzat , penseta au.

Adanec pecatu eguin evanian , etorri zirian impernuti mundura zazpi aguintari. Zazpirac zirian deungaac , ta oquerrac. Zeinec , baino ceinec naijago eveen aguindu mundu guztian. Ecatri cituben aguintari areec , bacochac bere tropaac , soldaubac , crijaubac , ta crijadac. Impernuti pecatubagaz mundura etorri zirian aguinaldi. Zatija.

C

ta-

tarijen iceñiac dira : 1. *Sovervija* : 2. **Codicija**.
3. *Lujurija*. 4. *Envidia*. 5. *Gulerija*. 6. *Gorrotu sutsuba*. 7. *Naguitasuna*. Ezin alcar artu eueen ; ta asi cirian guerran alcarren contra.

Sovervijac mundu guztia imini gura cuquian andituta , aixaatuta , arrotuta. Codicijac nai cuquian , bestial odolac , eta munac , uzanac leguez , chupauta , balijo guztia bere poltsaan euquitia. Luxurijac guztiac icusi guracituquian loituta , atsituta , aragui artian lizunduten. Envidijac gura evan , dirianac orituta , sicututa , igartuta egotia. Gulerijac , eztaarriraguino beteta , aseta guztiac egotia. Su-gorrotuac guztiac icutsi guracituquian ixioita , alcar erreectan. Ta naguitasunac , guztiac etzinda luurrera beguira egotia. Sovervijac ezin icutsi zituban ^{azkar} ásiac : Ezda , luurrera veguira etzinda egozanac bere ; ta ain guichi , guztia chupau gura eueenac. Alan Sovervijac imini eutsen guerria Gulerijari , Codicijari , ta Naguitasunari.

Gulerijac , ta Naguitasunac ez even alcar galdu gura. Bainaz ezin icutsi even , inor oritura , igartuta , ta ixloita egotia. Ta ain guichi , diruba gordetia gaiti , gosia iragotia , ta gorputza arro , ta sabela zimur euquitia. Alan Gulerijac , ta Naguitasunac irako eueen guerria Sovervijaren , Codicijaren , Embidijaren , ta Sugorrotuaren contra. Bainaz Gulerija aseta eguan leguez , ta Naguitasuna alpetra dain leguez , bertati cansau cirian , ta ichi eutsen guerriari.

Luxurija zao guerrarie guichien eucana. Besten guerriari beguira eguan. Ta esaten evan
be-

Iasiquizunac.

19

bere artian : gutro bere oneen baquias neu eguin biarco ditut. Alan bere sobervijac, ta codicijac imini eutsen guerria luxurijari. Sobervijac ez evan bat eguin gura luxurijaren ezaintasun lotsarizcuaquin. Ta codicijac ez evan emon gura luxurijarentzat diruba. Luxuriā dān leguez lelenguan arpeguiera onecua, alegueria, ta convitontsuba; sobervijagaz, ta codicijagaz guertia eukan artian, bera visitetata juaten cirianac, chito ondo, eristen eutsen aren verbeta labanari, alegueriarri, ta guztiai naija eguiteco eukan medubari. Eguija da, batzuc esaten eveen: *Atsa eucala*. Beste batzuc: *Ostia eucala loija*. Beste batzuc: *liquina erijela*. Beste batzuc: *Verenua iraasten rvala*. Baino onaco esanei bere ez eutsen gueijenac entzute andiric emon. Ta zabalduzan errī guztietan: Zazpi aguintarien artian, luxuriā zala aleguerena, bigunena, ugarijena, ta gustuac guztiai esquintcen eutsezana. Guejago bagaric, errī, ta erreinu guztiac juan cirian prisaca, luxurijari escuban mun eguitera, ta obeidutera.

Orduban beste aguintari chaarrac sinistu even, edo igues eguitia, edo illtia. Sovervija asizan arin aringa Pavo-errialae mutilduten, aren lumaaquin arrotuta, aixaatuta, beste munbetara iragoteco. Codicijac itanduten evan, ya nun eguan *Potosi*, ango *urria*, ta zidarra poltsaun ondo gordetako. Su-gorrotua ixioita joian errijac guztiac erretara. Envidijac topau gura euquian bidia, urtarilgo ipar otzac urtetean daven lecua; agaz bat eguin da, mundu guztia oritu-

II. Zatija.

C 2

te-

20

Aguindubetaro

teco , ta igartuteco. Gulerija evilen carnacerija baten villa , sabela bein ondo beteta , guero biar bazan illteco. Naguitasuna sartuzan corta illun baten , ta an gueratuzan etzindá , luurrera beguira. Tercijo onetan aurquituten zirian , impernuti urtendaco sei aguaintariac , ija euren iza-tiagaz desesperauta.

Baina luxurija dan leguez Sefora andija , crijadu , ta crijada asco biar ditubaua. Pensau evan aguaintari chaar areec galdua , ez eucala provechuric. Oba evala , bere palacijora eruan da , guztiaquin balijau. Abisau eutseen guztiaik juan zitezala beragana , ta ez cutseela gachic eguingo. Juan cirian dirianac luxurijaren aur-rrera , ta aguindu eutsen , berari obediudo cut-seela beti. Icutsi citubanian guztiae luxurijae bere mendian , ta esanian , entero verba leuna-quin , ta gera bigunagaz esan eutsen guztiai , ta bacochari , celan bera servidu biar evem.

Luxurijac esan eutsan *Sobervijari* : Zu juan-go zara beti neure aurrian. Prestauco deusta-zuz vidiac. Ta edeguico deustazuz , neuc sar-tu biardodan ccheco atiac. Esan eutsan *Codici-iari* : Nai irabazita , nai logrerijan , nai oostuta , biardodan diruba beti prest euquico deus-tazu. Codicijac leleenguan burubari eraguiten eutsan. Bainaz laster crantzun eutsan : *Bajetz*. Esan eutsan *Gulerijari* : Sarri gosetu oizala , ta beti maija prest euqui eguijola. Esan eutsan *Em-bidijari* : Zuc jarraituko deustazu beti neute or-puetan. Esan eutsan *Su-gorrotuari* : Zuc jarrai-tuko deutsazu , neure ondoric datorren embidi-ja-

Ieasiñunat.

21

jari. Esan eutsan azquenian *Naguitastunari luxurijac* : Zu cansetan ez nas gura , ta egongo zara beti neugaz. Pozaren pozez erantzun eutsan Naguitasunac : *Baietz.*

Ara eman , cristinaubac , zazpi pecatu buru , edo capitalen asieria , guerria , ta baquia , luxuri ja guztien aguaintari dala. Ezda au , neuze entzula onac , burutacinoe sutsu bategaz asmauba. Ezda urrin errijetan jazoten dana. Ez bada gueure artian , cristinauben artian egunero negarragaz , ta peniagaz icusten doguna , da. Sovervija da andiguria ; buru erichija , urten guria , apaindu guria , ta arrotasuna. Ta oni jao-co , luxurijari bidiac prestetia , ta atiac edeguitia. Sobrevijaren orpuestan davil beti luxurija. Ezda icutsico panparroe , buru erichiric , ta urten gurarie , luxurijaren atsa ondoric ezdarraiconic. Codicijac dauca carguba , luxurijari diruba emoteco. Bada , pobre bilox bati gaisqui esan bagaric , lauzuri emongo ezbajaco bere ; luxurijarentzat ezda inos diruba palta , edo norberarena , edo inorena , edo oostuba , edo ainbagacua. Gulerijac dauca carguba luxurijari maija prestetaco. Orregaiti , gulerijazco jan edana davilen lecuban , inos luxurija paltau ez , dinue Eleisiaren Garasuac. Envidijac dauca carguba luxurijaren orpuetan ibilteco ; ta su gorrotuac embidijaren orpuetan. Bada luxurijari orpuetan darraico beti bildurra , celua , sospechia , icutsi ezina , eer esana , gorrotua , vengantzia , penia , tristecia , ta larrija , ceintzuc dirian embidijaren , ta su-gorrotuaren seme alabaac.

Orain:

** *Aguindubeetako.*

Oraint esatendan naguitasuna , da , cristinaubac Jaungoicuaren gaucitaraco daucan atxera pena , gogo illa , ta vijotz otza. Alan esan eutsan luxurijac naguitasunari : Beragaz egon cedilla beti. Bada beti dago luxurijagaz naguitasuna. Lotsarizco pecatubetan sartuta daguan cristinaubac , nequez ceruruz beguitatuten dau. Nequez espiritu ba viztuten dau. Pecatubari , ta ocasinoiari istia , vitzitza deungua mudetia , compesinoe on bat eguitia , ta Jaungoicua serbidutiari gogoz equitia , gauza astuna , ta gacha da luxurijotsuarentzat. Guejenian gueratu oijacz luxurijotsubari onaço gauza onac gue-roco , ta beti gueroco ; pecatu lojac beragaz darabilelaco , Jaungoicua serbiduteko naguitasuna.

¿Ezda báda , neure entzula onac , guztiz vil-durgartija , ta icáragarrija , beste pecatu guztiac , ta vicio ; edo oquerretija guztiac beragaz naastauta data vilzan luxurija , edo lotsarizco pe-catuba? Gogoratu báda , cristinaubac , ce eche , edo egon lecu ondotsuba , zabala , lucia , ta altuba daucan munduban castidadiaren contraco pecatubac. Ez aaztu bere erreinu , edo aguindute madaricatubagaz. Bildurtu , ta icaratu urrieti bere pecatu lotsarizcuaren zaatiagaz , bere sarepian sartutak , betico galdu ez zaizan. Escatu daijogun Jaungoicuari bere misericordia , eguiija santuben czauberia , ta castidate santiaren doe garbija , munduban gogoz bere legue santuba gordetako , ta ceruban beti go-cetako. Amen.



III. ICASQUIZUNA, CEINETAN ERA-
custen dan : Jaungoicuac Lotsarizco pecatuba-
ri celan beguiratuten deutsan.

Pecatuba esaten danian, aitü biarda, cristi-naubac, pecatarija, edo pecatu dana. Lapurre-tiagaz aituten da, celacua dan lapurra. Humil-dadiagaz, celacua dan humildia. Jaquiturijagaz, celacua dan jaquituna. Castidadiagaz, ta virgi-nidadiagaz, celacua dan gorputz, ta arima gar-biduna. Ta lotsarizco pecatubagaz, celacua dan, verba loijac, eguite loijac, ta bidebagaco gu-rari loijac daucazan guizona, edo emacumia. Ezuberazco eguitadiac celacuac dirian, alacua da Jaungoicoaren veguijetan cristinauba. Ezau-berazco eguitade oneec, nai onac, ta nai cha-arrac beragaz daruaz cristinaubac beste mundu-zaguino. Onac badira ceruraguino. Chaarrac ba-dira, ta erreinadijetan ez badira, impernura-guino. Ez dago erremedijoric. Icusi ezquiero ba-da, leengo eracutsijan, lotsarizco pecatubac munduban daucan lecu andija, ta estimauba. Ezda errazoeti campora izango, cristinaubari, ceruban, edo impernuban beti egor biarco da-vena, sinistuten davenari, esatia: Ya Jaungoi-quac ceruti celan beguiratutem deutsan lotsariz-co pecatu-dunari. Baita: Ya impernuban ce-lan beguiratuten deutsen bere. Orain esango da

Ic.

24

Aguindubetako

leleengua, ta gueroco icasiquizunian bigatrena.
Entzun eguizu gogoz.

Modu bitara portetan da Jaungoico zucena, ta Santuba bēordenetan. Baita Jaungoicuaren antzera beste legueguinac bere. Bateti, legue santuba austen davenac, ta gaisqui eguiten davenac, zamaituten ditu, ta castiguetan ditu. Ta besteti, eracusten deutscu ontasun neurri bagaco bategaz, celan alderatu biardogun legue austeti, ta esquintcen deuscu ondo eguiñaren sarija. Esango deutsut bada, cristinaubac, doctrina onstan: 1. *Jaungoicuac celan zamaituten dituban lotsarizco pecatu dunac.* 2. *Cegogogaz eracusten deutsun Jaungoicuac, pecatu loijaganic aparteetako.* Prestau eguizu, cristinaubac, entzutia aimbat gogoric zurrenagaz.

I. Edo ceinec daqui, Jaungoicuaren maldecinoiac ce itzala, ta erruba daroian beregaz. Jaungoicuac cer baiti maldecinoia ezarten deutsian, bere vijotceco gorroto, ta asarre nautsija eracusten dau. Alan eracusten deutscubee escritura sagraduco jazo ascogiz Eleisiaren gurasuac. Entzun eguizu bada orain, neure cristinaubac, ceimbat maldecinoe jaurteguiten dituban Jaungoico itsaltsubac araguizco pecatudunen contra (1). *Madariatubac* guizon, eta emacumiak, lotsaarizco pecatu nasaijaquin munduba loitura, Jaungoico andija, uxalagaz guztiac itotera, ecarri eveenac. Lotsaarizco pecatubagaiti, luurreco gauza vitzi guztiak ondaturera, Jaungoicua obligau eveenac. *Madari-*

ca-

(1) Marchant. Tub. Sacerd. trat. 3. lect. II.]

Icasiquizunac.

25

tatuba, can erichon, Noeren seme lotsagaldueña, lotsarizco pecatuba gaiti. *Madaricatuba* Sodoma, Gomorra, ta ingurubeetaco gentia lotsarizco pecatubac gaiti. *Madaricatuba* Her, ta onan lotsarizco pecatubac gaiti. *Madaricatuba* Siquengo gentia lotsarizco pecatuba gaiti. *Madaricatubas* Isrraeltarrac, Moatgo alabaquin pecatu eguin eveniac, lotsarizco pecatuba gaiti. *Madaricatubac* Zambri, ta Madiango alabia lotsarizco pecatuba gaiti. *Madaricatuba* Amon lotsarizco pecatuba gaiti. *Madaricatuba* Absalon lotsarizco pecatuba gaiti. *Madaricatubac*, Santa Susana garbijari pecatu eraguin gura cutsen agura zaarrac, lotsarizco pecatuba gaiti. *Madaricatuba* Gavaongo gentia lotsarizco pecatuba gaiti. *Madaricatuba* leguezhaarrian edocein emacume adulterijoguin lotsarizco pecatuba gaiti. *Madaricatuba* Corintoco luxuriotsuba, San Paulo Apostolubac lotsarizco pecatuba gaiti diabrubari entregau eutsana. *Madaricatuba* Erodes lotsarizco pecatuba gaiti. *Madaricaba* Erodias, emacume dantzaria, ta loija, San Juan Bautistaren samia dantziaren saritzat escatu evana, izotz gainian iragoten evilela, izotza ausita, samaraguino uretan sartuta, oinaquin dantzan evilela, buruba urecatu evana, lotsarizco pecatuba gaiti. *Madaricatuba* Nicolas Antioquiacua lotsarizco pecatuba gaiti. *Madaricatuba* Apocalisico Jesabel, emacume loija, ta agaz pecatu eguin even guztiac, lotsarizco pecatuba gaiti. Azquenian madaricatubac San Pedro Apostolubac bigarren cartiaren bi-

II. Zatija,

D

gar-

26

Aguindubetako.

garren capituluban icentetan ditubanac, lotsarizco pecatuba gaiti.

Ara, neure entzula onac, Jaungoicuac ceruti celan beguiratuten deutsen lotsarizco pecatu dunai, edo seigarren aguindu santuba austen daveenai. Eurac gorputzari, ta araguijari gusto* loijac emon eutsezanac, batzuc batera, ta bestiac bestera jagui dira Jaungoicuaren legue santubaren contra. Bainha Jaungoicuac araguijco pecatubari deutsan gorroto mortala, jausizan euren arimen gainera. ¡Oh, desdichaubac, Jaungoicuaren madaricatubac! ¡Oh, zoriguesto cuac, pecatu loija gaiti demoniuari betico entregauta dagozan guizon, eta emacumiac! ¡Ce guichi pensauco even arima condenau areec, munduban vitzi zirianian, Jaungoicuac aimbeste gorroto eutsela, eurac eguiten cituben luxurijazco pecatu bai! Bainha, munduban izan arren pecatu lotsarizcua, guizon, eta emacumiac encantauta, itsututa, zoratuta daravilzana, cerutarren veguijetan beste bat da. Ceruti beguitatuta, guztiz da ichusija, ezaina, illuna, atsituba, ta gorroto garrija lotsarizco pecatuba, gorputzac usteldu, ta arimaac condenetan ditubana. Cerubac, eta cerutarrac entzun bere gura ezdavee pecatu loijaren icena.

Alan esaten deutscu San Paulo Apostolubac (1): *astan bere artu biar ezdala luxurijazco pecatubaren icena.* San Paulo Apostolubac, castidadiaren contraco pecatuba aitatuten davenian, dino Santo Tomas Villanuebacuac (2), beti ecar-

(1) Ephes. c.5. (2) Fer.4. post Dom. i. quadrag.

Ieasiquizunac.

27

ecarten ditubala gogora, Jaungoicuaç lotsarizco pecatubari deutsan gorrotua, ta bera gaiti eguiñ dutuban castigubac. Engainauta vitzi dira cristinaubac. Jaungoicuaç erreztzo parcatutene davéla, pensauta, pecatu loijai arimian lecu emoten deutsenac. Diabrubac bere sarepian segurubagó cuquiteco, emoten deutsen itsutasuna da au. ; Oh, ceimbat onaco zoxigüestocó errucarrí dagozan, urte ascotan lotsatizco pecatubetan iguiri, edo ugar eguiten daveela! ; Ez leuquee pensauco oneec, Ceruco santuben, Aingueben, Virginia gütziz garbijaren, ta Jesus ederraren amodijua, carina, ta vijotzac irabazteco, guztiz luurrezcua, araguizcua, ta lotsarizcua dala luxuriya?

Luurrezcua da pecatu lotsagarri au. Ta luurreco gaucetan daucaz bere gustuac. Araguizcua da. Ta araguija, arimia apartau ezquero, luurra da. ; Ce prenda ederra izango dan bada cristinaubaren gorputza, berezko luurtasunaren galnera, lotsatizco pecabaquin loituta, daguana, Jaungoico, gütziz santubari, ta garbijari aurera presentetaco, edo esquintceco. ; Ez dira acordauco cristinau loijac, euren gorputzac diriana, edo izan biar davena Espiritu Santubaren temiplu, edo egon lecu vitzijac? ; Espiritu Santubaren egon lecubac eguingo ditubee bada pecatu loijaren ontzi? ; Ta ez da aserratuco Jaungoicua alaco eguitade loijaren contra? ; Bere eche santuba luxuriagaz manchau, ta loitu davenaren contra? ; Jesu Cristoren gorputz garbijaren zatijari, cein dan cristinaubaren gorput-

II. Zatija.

D 2

za,

28

Aguindubeetaco.

za, luurreco lizuna, ta atsa bere guraz imini deutsanaren contra? ; Oh, cristinaubac! Jaungoicua ez litzaate Espiritu garbiña izango, aparteco gorrotua ezba leutsa lotsarizco pecatubari. Ainguerubac, Ama Virgina guztiz Santiac, Santubac, eta Santac, Cerutar guztiac deutsee gorroto ixia araguizco pecatu ezainari.

Sinistu bada, cristinaubac, sinistu: Munduban dala lotsarizco pecatuba labana, leuna, zabalua, ugarija, ta maitetuba. Sinistu arima ariamati: Ceçubac beti izan deutsala, ta izango deutsala gorroto; beti zamaitu davela, madaricatu davela, ta castigau davela Jaungoicuac aparteco celuagaz lotsarizco pecatuba. Baita eracutsi bere guztiai, celan apartau biar dogun pecatu impame atati.

II. Aita on batec seme batari, gaisqui egun davelaco, asarre vitzijagaz zurra andija emonda, beste semiari, alaco gachic eguin ez daguijan, amodijoz, ta carinoz conseju onac emoten deutsan leguez; alan Jaungoico onac bere, lotsarizco pecatu dunac maldecinoe icaragarriajquin impernuco satanasari entregauta guero, eracusten deutsee amodijo, ta carino andijagaz cristinau guztiai, celan apartau biar daven pecatu loijetati. Lecu ascotan gauza onen gai-nian. Espiritu Santubac eracutsi deutscu gueure cer eguna. Guztiac ezin esan leguiz doctrina labur baten. Banaca batzuc ecarrico ditut ceuben gogora. Ta areetati aituco dozu gueure Aita cerucuaren opa ona. Dirauscu bada Espiritu Santubac escritura sagraduban lecu ascotan.

Ez

Ez eguijozu emon emacumiari ceure goguan lecuric , galdua gueratu ez zaitezan. (1) Ez eguijozu emon emacume loijsari compijantzatic; ta ez zaitez izan aren adisquide , zeu , ta daucazun guztia galdu ez daguizun. (2) Espiritu Santubaren egon lecuba da ceure gorputza ; ez eguna bada loitu lotsaritzco pecatubagaz. (3) Emacume loijsa osticopian darabilee guztiac , simaurra , edo satsa leguez. (4) Contu eguizu , ene semia , araguizco pecatuban jausi ez zaitezan. (5) Leza andi baten moducua da emacume verdia : lapurra leguez davil , inocentiai pecatu eraguiteco : Ta pecatubagaz illten ditu arimac. (6) Luxurijotsubagaz bat eguiten dana , galduba da ; aarrac , ta usteltasuna baino , ezjaco gue-ratuco. (7) Inoren emaztiagaz ez zaitez jarrita egon ; ez eguizu agaz ardaozco convitic euqui; ceure gogua bere ganatu ez daguizun , ta galdu ez zaguizan. (8) Igues eguizu pecatu loijsetat. Beste guztiac baino , ezainagua da , araguizcua dalaco. (9) Zaldi sutsubac leguez duaz pecatu loijsetara ; ¿ Ta eznas asarratuco aren contra ? (10). Luxurijari lecu emoten deutseenac , ezdavee pen-sestan Jaungoicuagana viurtutia. (11) Ez eguijozu entzuteric emon emacumiaren leunquerijari. (12) Lelenguan verba eguingo deutsu chitolaban ; baina azqueneraco , suguiac leguez , aguincia eguinda ichito zaitu. (13) Luxurijotsubaren

ve-

- (1) Eccl. 5. (2) Ibid. (3) I. Corint. 6. (4) Eccl. 9. (5) Tob. 4. (6) Prov. 23. (7) Eccl. 19. (8) Id. 9. (9) I. Cor. 18. (10) Jerem. 5. (11) Oscas c. 5. (12) Prov. 5. (13) Id. 23.

30

Aguindubeetaco.

veguijac illunduta dagoz ; ta esaten dau bere artian : *eznau inoc icusten* (1) Ardaunac , eta emacumiac jaquitun asco condenau ditubee (2). Emacume leunaren echia da impernuraco vidia; ez zaitez juan aren videti. Illuntzietañ plaza esquinetañ, ta vide vaztarretan ichaanda , la van verba eguinda , engainauc zaitu : bada virtute andicuac bere engaina , ta condenau ditubee emacume leunac (3). Nescateliari ez eiguijozu beguiratu ; bere edertasunagaz engainauta , ta galdu ez zaitezan (4). Lau gauza dagoz inos aseetan ez dirianac : Impernuba , luurra , suba , ta luxurija (5). Mortipicau eguiuz ceuben gorputzac , lotsarizco pecatuban jausi ez zaitezan (6). Luxurijotsbac ez davee ceruco erreinuba artuco (7).

¿Baina ceimbat onaco conseju on , ta gueure ondo gurazco abisu emoten deutscuz Espiritu Santubac , lotsarizco pecatubetati gu apertetaco ? ¡Oh , gucure Ceruco Aita ona , ta biguna ! Ezin baquiac eguin leguiz pecatubagaz Jaungoicuac. Castigau biar dan , penitencijagaz birrinduten ez dan pecaba , erremedijo bagaric Jaungoicuaren Justicija zucenac. Berac ezaututen dau pecatu guztien , ta bacocharen ezauntasuna , ta malecija. Ez gueuc ustedogun moduban , ezbada dan moduban. Baqui , cristinauben pe catubeetati lotsarizcuena , ta gorrotogarriena dana. Baqui , cerubac gogox castigueetan davena. Baqui , satanasac pecatu agaz guéijen engaineetan

(1) Job 14. (2) Eccl. 19. (3) Prov. 7. (4) Eccl. 9. (5) Prov. 30. (6) Tesalon. 3. (7) 1. Corint. 6.

Irasiquizunat.

31

tan davena. Baqui, cristinaubac, pecatu lotsarizuan jausteco, ocasinoe asco dauquczana. Ta, au guztiau jaquinda, esaten deutscuz. Jaungoicuac bere escritura sagraduban, pecatu ezainati deutsan gorrotua, ta aganic aparteetako moduba.

¿Cer guraco dau bada, cristinaubac gueijago gauza onen gainian? ¿Ucatu leguiija Jaungoicuaren vorondatia? ¿Durdau legui, cerubae luxurijari deutsan gorrotua, aimbeste zamaigaz, ta maldecinoegaz pecatu loidunac satanasari entregau ezquiero? Ez, cristinaubac. Ezin ucatu guinal. Ta ezzogu ucatu biar. Sinistu biar dogu bene benetan, aparteco gorrotuagaz Jaungoicuac castiguetan davela lotsarizco pecatuba.

Dempora guztietan izanda lotsarizco pecatuba cerubaren gorrotocua. Bainha Jaungoicuaren seme vitzija guizon eguzinan ezquiero, oraindino cerubaren gorrotocuagua da. ¿Cegaiti bida au? Jaungoicuaren semia guizon eguinagaz, guizonaren naturalecia, leen balno santubago, ta Jaungoigotubago gueratu zalaco. Ama Virginianaren sabel santan artu evan Jaungoicuaten semiac gueure erico gorputza, edo araguija, ta odola beragana. Ta gueratuzan Jesusen gorputz santuba Jaungoicotuta. Gure gorputzac dira Jesusen gorputzaren ericuac. Ta gueratuten dira bautismo santurban garbituta, santututa, moduren baten Jaungoicotuta. Orregaiti gara cristinau gustioc Jaungoicuaren semiac, ta Geruco erederubac. Edo, obeto esateco San Pau lo Apostolubagaz (1), gueure gorputzac dira.

(1) I. Corint. c. 6.

32

Aguindubetako

Jesusean gorputz santubaren zatijac , ta Espiritu Santubaren egon lecu vitzijac. ; Cer izango da bada? ; Edo celan beguiratuco deutsa Espiritu Santubac bere egon lecu vitzijari , cristinaubaren gorputzari, lotsarizco pecatubagaz loituta dacutsanian? ; Oh, cristinaubac! Edo ceinac dacuts, gogoratuta beste bagaric, icara eraguiten davena pecatu ezain onec. Tristetuten dan Espiritu Santuba. Ta aparteco injurija eguiten deutsa Jesu Cristoren gorputz santubari, ta garbijari. Au gaiti esaten dan San Agustinec (1) : ; O se maldade andija! ; O se pecatu negargarrija , Jesus maitias bere odol santubagaz irabaci , ta garbitu evan arimia , istanteco gustua gaiti luxurijagaz loitutia! Impernubaren echuracua da luxurija , dino San Buenaventurac (2). Impernuban dago su ixiusa , ar aguincarija , ta atsa. Alan lotsarizco pecatudunac daufa araguijaren suba , conciencijaco arra , ta luxurijaren atsa. Orregaiti , dino eracusla santubac ; ija celanvit beragaz daucala pecatu loi dunac impernuco penia.

Gorrototu bada, cristinaubac , lotsarizco pecatubaren contra. Artu bacochac beretzat Jaungi cuaren esan zintzuac , ta opa oneco abisubac ; pecatu ezainetan inos jausi ez gaitezan. Berac esaten deutscu chito argiro : ya lagun gaistuac , eta araguizcuac , endaimas emacumiac edan engainenetan dituben , ta pecatu deunguiaren sarian sartutene dituben arimac ; celan ardaozco convitac , ta jan edan laurreguijac dagozan

(1) Serm. 230. de Temp. (2) 1. C.

Icasiquizuna.

33

zan lecuban, artuten daven indarra pecatu czainac : Celan ocasinoeco lecubetari alde egun biar dan : Celan gueure veguijac, mijna, ta sentidubac, edo zuzmaarijac gorde biar ditugun, arimia, ta gorputza loitu leguijeen gaucetati.

Escatu daijogun bada gueure Aita cerucuari, bialdu daigula bere gracija. Ya dichia daucagun ezquero, bere aoti entzuteco, garbitasuna gordetako bide zucena, ta biarrecua ; gorde daigun gueure vijotctan, arimetan, ta gorputzian castidadia. Au galdua, gueure gainera etorri ez ditezan Jaungoicuaren beraren maldecinoc icaragarrijac. Jesu Cristo gueure Jaunac egun daigula mesede au bere odol santubaren baliuju gaiti. Amen.

IV. ICASQUIZUNA, CEINETAN ERA-
custen dan, Lotsarizco peccatubari elan begui-
ratusen jacon impernuban.

Eleisa Ama Santiazen Guraso ascoe esaten deutsec, neure cristinaubac, pecatu loiaren gurari eragotzijari impernuko suba. *Ignis infernalis.* Aitu dozu bada leengo doctrineetan : Munduban aguindute andija daucala ; ta cerubac chito gorroto deutsala : Impernuba alegretan daven peccatuba dala : Ta munduric gueijena ara daroiala. Uste dot bada, neure entzula onac, gueure arimen oneraco izango dala, gogoratu-

II. Zatija.

E

tia : ya es artuera eguiten deutsen , edo celan beguitatuten deutsen im pernuban lottarizco petatubati. Onetataco aituten emongo deutsut eracutsi onetan : 1. *Condenaubat gorroto deutse la peratu loijari.* 2. *Inoc egurria naidaveela.* Prestau zaitez , cristinaubac , aimbat entzun eraric oneenagaz.

I. Condenauta dagozanac , edo dira diabrubac , edo dira guizon , eta omacumien arima condenaubac. Batzubac bere ezdavee gura pecatu loija im pernuban eureantzat. Ez diabrubac , euren izatiari ez jaocolaco. Ez condenaubac , euren erregatrija dalaco. Icusidaigan celan.

Lektengo : Diabrubac gorroto deutsee luxurijari , euren izatiari ez jaocolaco. Diabrubac gorputzic ez dauquee. Dira espiritubac. Naturallezaz izate altuba , ta noblia dauquenac. Sobrevijac , vorondate gaistuac , ta pecatubac ezaindu , ta madaricaturu cibaban diabrubac. Condenauta dagoz bético espiritu zoriguestoco ateec. Ta gura leuquee , arima goztiac bere condentia , euraquin beti erretan im pernuban euquiteco. Baina , diabru madaricatu areen izate espiritzuari guichien jagoan pecatuba , da luxurrijazco pecatuba , araguizetta , ta loija dalaco. Au gaiti esaten dau Aita Burdaluze zelo oneco Jesuita jaquitunac (1). Diabru guztiac izan arren goetxe arerijuac ; ta goti pecatubac eraguiteco , ondo dendatuten dirianac , ez diriala edocein modutan. Batzuc eraguiten ditubee erijotzaac. Beste batzuc gorrotuac , ta odijuac. Beste bat-

zuc

(1) T. 3. Serm. sob. Torp.

Icasiquizunac.

35

zuc andiguraac, lapurretaac, embidijaac.... Bainna luxurijari suba, ta indarra emoteco daguan aguintarija, da, *Asmodeo* esaten jacon diabru-ba (1). Auda Diabru guztietati baxubena. Au gaiti esaten deutsa Jesu Cristo, gueure Jaunac Evangelijo santuban: *Espiritu loija* (2). Guztiac izan arren gacheracuac, ez dau aretati edoceinec gura bere izate espirituzcua gaiti, guizonari pecatu loijac eraguiteco, egun biar impamia bere contura artutia. Borregutzaco, ta pregonerutzaco egun biarra artuten daveen leguez errijetan, guazonic baxubenac; alan, araguizco pecatubac eraguiteco, carguba artuten davec espiritu condenauric baxubenac.

Aita Looner, Jesuita piedadecuac esaten dau (3); Guizon etzicerubatec, araguizco pecatubat egun da, andi laster, dei eguiten cut-sala demoninuari, gauza bat itanduteco. Bainaz ez jacon aguertuten espiritu galdua, bestectan leguez. Dei eguiten cutsan bigarrenian. Baita irugarrenian bere. Azquenian, nequezco baton aguertu jacon espiritu illuna. Bainaz ez evan etzicerubaren ondora eldugura. Contu artu eutsan etzicerubac etsaijari: «ya ce gaiti leenago aguertu ez jacon? Ta ce gaiti ondora juaten ez jacon? Erantzun eutsan diabrubac etzicerubari: ¡E! Zure luxurijaren atsa ezin iragez zandot. Beste aimbeste, dino José Claus Jajquitunac (4), jazo jacola emacume lotsarizco

H. Zatija.

E 2

pe-

(1) Tob. 3. (2) Matth. 12. (3) Bibliot. Conc. v. Luxuria (4) T. a. Spicileg. univ. L 7. de Luxuria.

pecatudun bati. Esan eutsan diabrubac emaeume loiari: *Alle eguzt orti, atsz darijazuta.* Begitatu bida, cristinaubac, imperauco espiritu ma lariatubac bere gorroto deutseela lotsarizco pecatubari, euren izatiari ez jagocolaco. Baita arima condenaubac bere, euren erregarrija dalaoco. Ieus i daimun celan.

Bizarrenian. Arima condenaubac bere gorroto deutsee pecatu loiari, euren erregarrija dalaoco. Bada arima guichi egongo dira condenau-ta, castidadiaren legue santubac ausi bagaric. Ez d'linot, beste pecatubac gaiti ez diriala condenetan arimac. Sinistuten dogu, edocein pecatu mortalegaz irabazten dala impernuba. Ieusten dogu malpecau, beste pecatubac bere sus-trai andijac, ta aguindute zabala dauqueela guseure vijotcetan. Baita, escritura sagradubac, ta Eleisiaren gurasuac dinuenez castidade santia gaiti, ta aren arerijo pecatu loi ja gaiti, sinistu daiquegu, arima condenau guichi egongo diriala impern uban, castidadiaren contraco peca-tu ezaina gaiti aparteco suba, aparteco penia, ta aparteco errabijua ez dauquenac. Ta, nobe-raren erregarriric, ta penagarriric inoc gura ez daven leguez, condenaubac bere beti gorroto izango deutsee, curac beti erretan, ta penetan euquico dituban pecatu loiari. Amarrubaren amurruz naico ditubee zatitu, ta apu itu euren gorputzac, araguizeo pecatubac eguin zitubela-co. Onan esaten da bida, cristinaubac, bai diabrubac, ta bai condenaubac impernuban gor-roto izango deutsela pecatu loiari; Oh, gach-

Irasiquizunat.

37

negargarrija! ¡Guero aimbeste gorroto izango jacona, orain ain maite izatia!

II. Baino beste aldeti San Bernardoc esaten deuscu; *impernu guztia alegretan davela luxurijac*. ¿Ta ce gaiti? Santubac berac esaten dau: Cisic mundu guztia condeneetan davelaco. *Quasi totum mundum trait ad supplitium*. Au gaiti, bai diabrubac, ta bai condenaobac nai davee, bestiac pecatu loijac eguitia. Aita Looner, leen izentau dan Jesuita jaquitun zelotsubac esaten dau: (1) Mundaban zabalduta egozan espiritu gach guinac, batu ziriala lecubatera. Contetan citubela euten gach eguinac, ta pecatu eraguinac guztiac. Ta zurretan citubeela, beste espiritu impernubar egozanac, ondo porteetan ez cirialaco. Demonino batec esan evan batzaar impernuco atan: *Berroguei urtian jardun eva-la, Praile bati luxurijazco burutacinoiac, ta gurarijazcogogora eruaten*. Ta, Luciferrec co-roebat imini eutsala espiritu deunga ari, ondo portau zalaco. ¡Ceimbat pecatu andi eraguingo zitubeen berroguei urtian mandu zabalian beste diabrubac! Orregaiti bere izan zirian zurraubac, Luciferrec gura evan beste eguin ez eveelaco. Bacarric irabatci evan impernuco coroia, berroguei urtian Praile bati araguijaren tentacione loija, ta bildurgarrija imini eutsanac. ¡Oh, ceimbat gura lituquen impernubar pecatu lidunac!

¿Ce gaiti baina, esan legui, impernuco espiritu deungaac nai daveela aimbeste, cristinaubac

(1) Ubi supr. v. Luxuria. §. 3. n. 25.

bac pecatu loijac eguitia? Errazos asco gaiti, neure entzula onac. Pediac eracusten deutscu; diabrubac gueure arerijuac diriana ; guri pecatu eraguiteco, ta gu pecatuban illteco, ale- guin guztia eansau bagaric eguiten daveena; guizon, eta emacume guztiac impernuban cu- raquin beti erreetan euqui gura hituqueema. Ta, euren gurari gorrotozco madanicatu au jadiiste- co, ondo ezaututen davec espiritu condenau- bac : 1. Oidanez, lotsarizco pecatuba dala, las- terren iraasten dana, ta nequezen erremedijeetan dana. 2. Lotsarizco pecatu baten bein jausi cz- quero cristinauba, oidanez, beste pecatu asco- tan bere jausico dala. 3. Ezaututen davec dia- brubac, pecatu loijac escubide gueijago emo- ten deutsela eurai, condenauben arimac, ta gor- putzac impernuban peacetaco, beste pecatubac baino. Au gaiti, ez dira inos bere aspertuton espiritu zorigaistocuac munduban luxurijari su, ta indar emoten.

Lotsarizeo pecatuba laster iraaster dana; ne- quez erremedijetan dana; edo, inos bere ascoc erremedijau czoidavena; ta bere ondoric beste pecatu asco, Jaungoicua ucatuteraguinoco, era- guin oidotuban, guztiac autor daveen eguija, da, neure eristinaubac. Beste pecatubac, bai- no escubide gueijago lotsarizco pecatubac berez diabrubai emoten deutseena bere, impernuban condenauben arimac, ta gorputzac penetaco, gauza aguirija da. Bida Espiritu Santubac esa- ten dau: pecatu cegaz eguiten dan, agam pe- maric gueijen. Miin gaistocuari miinian emongo deut-

Lesiquizunat.

39

deutsee penaric gueijen. Gulerubari suan , ta sabelian penaric gueijen. Gorrotosutbari vorondaien , ta vijotzian penaric gueijen. Alan beste vicijo , edo pecatubetan. Ce arimaco , ta gotputceco sentidu , ta zentzun garrigaz eguiten daven cristinaubac pecatu ; sentidu , ta alizate atan bertan condenaubac pena gucijago. Ta an diabrubac , condenauba peneetaco , escudibe gueijago. *Per ea , que quis peccat , per haec et torquuntur.* Castidadiaren contraco pecatuba eguiten da , entendimentubagaz pensauta , vorondatiagaz nai izanda , gomutiagaz acordauta , vijotzagaz amauta , veguijaquin , miinagaz , bellaarrijaquin , escubaquin , pausu chaarrequin... gorputz guztiagaz , ta arimaco el izate guzquia. Orregaiti pecatu madaricatu onse escudibe gueijago emoten deutse diabrubai , gorputzac , ta arimac peneetaco , bestiac baino , Ta izan zatequiari , au gaiti esatia San Bernardo : Impetu guzia alegretan davela luxurijac.

Beguitandutenjat , cristinaubac , castidadiaren contraco pecatuden bati jazoten jacola impenhuban diabrubaquein , basuao illidaco ardi bati , mirubaquin jazoten jacona. Batac colpe eguiten deutsa veguijeti , bestiac samati , bestiac tripati , bestiac bularrsti , bestiac buruti , edo anquesatati , ta guztiac crabitera picatu , ta zulotuten deutsee , zatijac quendubaz , gorputz guztia. Beste aimbeste demoninuac impenhuban luxurijotsubagaz. ¡Oh , gorputz , ta arima , garbitasunaren contraco pecatuz loituta zagozana ! ¡Pensau etedozu ines , impenhuban demoninuac

cc-

40

Aguindubetako.

Celan herabiliko dituben ceure vegui loijac, mi-
in loisa, escu, oin, vijotz, matreila, ezpan,
belaatri, empia gorputz, ta arima guztia, eu-
li gosiac eztijari leguez, gorrotoz, ta amurruz
eldu daguijuenian!

¡Ah, cristinaubac! Gogoratuco baguendu,
gorputz, ta arima desonestubac bere zati guz-
tietan impernuban daucan aparteco penia, ta
padecieta moduba. Pensauco baguendu pusca-
bat astiruago, pecatu ezainac, ta loijac impes-
nuco espiritu deungai emoten deutseen aparte-
co indarra, ta al izatia condenau loijen contra.
Aaztuco ez baguina inos, sarritan entzuten do-
gunagaz, ta lecu ascotan iracurten dogunagaz.
Luxurijotsubac bai guizonac, ta bai emacumiak,
bai ezcondubac, ta bai libriac euren pecatuco
adisquidequin sartutene ditubela oe ixiiuetan, la-
bagorijetan, ta galdera irzaquinetan, nun egon
biarco daveen condenau loijac demoninuen bur-
lagarrizat, alcar zatituten, ta alcar erretan. ¡Oh,
lotsarizco pecatu madaricatuba! ¡Ce vengauba,
ta ce castigauba impernuban! Veguijac anditu-
ta, gorrituta, su artuta, materija atsituba da-
rijuela. Belaarijetan sierpe deungaac, eztenac
sartuta. Matrelleetan zapo mortalac erpiaquin,
ta aguinaquin oratuta. Ezpanac sarnatuta, baltz-
tuta. Miina aterata, ixiota, suba darijola... ¡Oh!
¡Ta celan beste pecatu loi lecubac? ¡Ah, neu-
re entzula onac! Liburu ascotan iracurten dana
gogoratuta beste bagaric, icara eguiten dau vi-
jotzac, ta araguijac. ¡Ta au ondo pensau ez-
quiero, cuquico leuque aimbeste lecu lotsarizco

pe-

Icasiquizunac.

41

pecatubac cristinauben gorputzcetan, ta arimatan? Etzetz uste dot, cristinaubac;

Ez bada aaztu inos, neure entzula onac, impernuco leza icaragarri atan daguala penia, pecatubagaz, ta errubagaz neurtuta. Cegaz cristinaubac ausi davén Jaungoicuaren leguia, an izango davela pena gueijago. Luxurijac loitu, ezaindu, ta pecatututen davela gorputz, ta arima guizon guztia bere zati guztietan. Impernuban dagozala ondar erriac, azupre ixuia, pica iraaquina, ar aguin carijac, ats ^{aytua} astutā, su gorija, ta illun galdaubac (1). Ez aaztu, lotsarizco pecatu araguizcuac, luurrezcuac, baxubac, czainac, ta loijac guztiz diabrubaren es-cuperatuten davela gorputza, ta arimia impernuban. Ango penagarri guztiaquin balijetan distala etsaijac, pecatu loidunac gorputzian, ta ariman castiguetaco. Ta au gaiti naidavela entero diabrubac, lotsarizco pecatubac guc eguitia.

«Ta naico etedavee, impernuban dagozan arima condenaubac, pecatu loijac guc eguitia? Bai, cristinaubac. Eurentzat gorroto deutzee araguizco pecatubari. Baina bestentzat nai davee. ¿Celan bada au? Santo Tomasen eracutsijan, arima condenaubac gura leuquee, beste guztiac bere condenetia. Eurac impernuban erretan dagozan leguez, bestiac bere ainche erre-tan egotia. Jaungoicuaren gorrotuan dago arima condenauba. Baita Jaungoicuaren adisquide guztien gorrotuan bere. Gorroto onetati jatorri. Zatija.

(1) Isaias. C. 30. 34. et 66. Psalm. 30. et 139. Job. C. 10.